

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA

#### MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

#### **Araban, Zuiako udalerrian, Domaikia herrian sortutako hondakin-urak isurtzeko baimena**

Espediente-zenbakia: VDP-A-2016-0031

Eskatzailea: Domaikiako Administrazio Batzarra

Domaikiako Administrazio Batzarrak Ur Agentziako Mediterraneoko Arroen Bulegoari eskatu dio Domaikia herrian sortutako hondakin-urak isurtzeko baimena eta horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, Zuiako udalean edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 18a

*Mediterraneoko Arroen bulegoburua*  
**AZUCENA SALAZAR BAYONA**